

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

GIZARTE KOHESIORAKO ARLOA

Ongizate Azpiarloa

Laudioko Udaleko alkate-udalburuak 2026ko urtarrilaren 28an emandako 2026-102 Dekretuaren bidez onetsi zen 2026rako sostengu laguntzen udal programako laguntzetarako deialdia

BDNS(Identif.): 884762.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/884762>).

Lehena. Onuradunak

Hainbat arrazoirengatik Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) jaso ezin duten pertsonak eta familiak. Pertsona eta familia horiek laguntza ekonomikoak behar dituzte beren oinarrizko premiak betetzeko, bizi duten gizarte-babes-gabetasuneko egoera dela eta.

Bigarrena. Objektua

Laguntza ekonomikoak ematea pertsona- eta familia-eremuko egoera oso problematikoei erantzuteko, baldin eta egoera horien tratamendua ez bada jasotzen DSBE eta EPO arautzen dituen legerian.

Hirugarrena. Araudia

Dirulaguntzen udal Ordenantza, 2021eko martxoaren 10eko 28 zenbakiko ALHAOn argitaratua.

Laugarrena. Zenbatekoa

Zuzkidura ekonomikoa 310.000,00 eurokoa da, eta gastua babesten duen aurrekontu-partidak, 2025 luzapenaren aurrekontuko 0601-2311-480.20 da eta 2026rako Gizarte Kohesio Arloaren aurrekontuko 0601-2311-480.20 da.

Bosgarrena. Epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, 2026ko abenduaren 31ra arte.

Laudio, 2026ko urtarrilaren 28a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ